

Ebazpena: 85/2023

Espedientea: 30/2018

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 28an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta hauxe erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea eskumena zeinek duen HIJOS DE LORENZO SANCHO SA sozietateak (aurrerantzean, LORENZO) langile batzuei 2015. eta 2016. urteetan ordaindutako lan-etekinengatiko PFEZaren atxikipenak ordainarazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 30/2018 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

- 1.-** LORENZO sozietatearen egoitza soziala, zerga-egoitza eta lantokia Bizkaian daude.
- 2.-** LORENZOK 2015eko eta 2016ko ekitaldietan egindako atxikipen guztiak BFAn sartu zituen.

3.- Dagozkion egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak egin ondoren, ZAEAk egiaztatu zuen LORENZOko langile batzuek lurralde erkidean eta/edo atzerrian egin zutela lan 2015eko eta 2016ko ekitaldietan. Era berean, ZAEAk egiaztatu zuen langile horiei ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak BFAn sartu zituztela.

4.- 2018ko otsailaren 20an, ZAEAk atxikipen horiek itzultzeko eskatu zion BFari, baina BFAk baztertu egin zuen 2018ko maiatzaren 16an.

5.- 2018ko uztailaren 16an, ZAEAk GFari zuzendutako inhibizio-errekerimendu bat aurkeztu zuen Correos-en bulegoetan, baina GFAk itzuli egin zion, 2018ko abuztuaren 6an.

2018ko abuztuaren 7an, ZAEAk inhibitzeko errekerimendua egin zion BFari, baina BFAk baztertu egin zuen 2018ko irailaren 5ean.

6.- 2018ko irailaren 14an, ZAEAk gatazka bat planteatu zuen Arbitraje Batzorde honetan, eta Ekonomia Itunean eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudian (aurrerantzean, EIABA) araututako prozedura arruntaren bidez izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da BFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkezteko eta proposatzeko izapidea, eta espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Izapide horretan, ZAEAk atzera egin duela deklaratzeko eskatu du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen loturen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

(...)

2.- Epez kanpo egotea

Ekonomia Itunaren 67. artikuluari eta EIABAREN 17.3 artikuluari jarraituz, Arbitraje Batzordeak lehenik eta behin erabaki behar duen auzia, zeina ordena publikoko auzia izanik ofizioz aztertu behar baitu, BFAREN lehenengo alegazioa da, hainbat aldiz egindakoa; zehazki, gatazka epez kanpo planteatu bada hori ez onartzeko kausatzat har daitekeen.

Hala, EIABAREN 13.1 artikulua, *ratione temporis* testu aplikagarrian, honako hau xedatzen du:

«Tributu-administrazioen artean sortzen diren gatazketan, hasierari dagokionez, honako prozedura honi jarraituko zaio:

Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributu administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatzuz, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontaktzen hasita.

(...)

2. Gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko paragrafoan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespenetik kontaktzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatzi baten bidez. Idatzi horretan, honako puntu hauek jasoko dira, gatazkaren gainean:

(...)».

Ondorioz, gatazka bat planteatzeko, denbora-baldintza bikoitz bat bete behar da: inhibizio-errekerimendua, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen dituen edo dituzten egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontaktzen hasita; eta, behin hori beteta, eta, beraz,

baldintzatuta, gatazka hilabeteko epean planteatzea, eskumena berariaz edo isilbidez berresten denetik zenbatzen hasita.

Gatazka honetan pertsonatutako administrazioek funtsezkotzat eta preklusibotzat jotzen dituzte epe horiek; horrenbestez, alderdiek ezin dituzte baztertu. Biak ados daude, halaber, ZAEAREN iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen dituen egintza dela BFAk uko egin izana gatazka eragin duten atxikitako kopuruak itzultzeko ZAEAREN eskaerari, eta hori 2018 maiatzaren 16an gertatu zela.

Desadostasunaren muina honako hau da, beraz: 2018ko uztailaren 16an Correos-en bulegoetan Gipuzkoako Foru Aldundiari (aurrerantzean, GFA) zuzenduta aurkeztutako inibizio-errekerimendua kontuan hartu behar den, inibizio-errekerimendua epe barruan aurkeztutzat jotzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, APAPPEL) 16.4.b) artikuluan ezartzen duenez, interesdunek, administrazio publikoei dokumentuak zuzendu nahi badizkiete, Correos-eko bulegoetan aurkeztu ahal izango dituzte. Hori egin zuen ZAEAK, baina akats bikoitza egin zuen, bai errekerimendu-idazkian bertan, GFARI zuzendu ziolako, bai bidalketa-helbidea adieraztean.

Hala ere, horrek ez du eragozten GFAk errekerimendu-idazkia bidaltzea BFARI, 40/2015 Legearen 14.1 artikulua horretara behartzen baitu. Artikulu horren arabera, gai bat ebazteko eskumenik ez duela uste duen administrazio-organoak zuzenean igorriko dizkio jarduketak bere ustez eskumena duen organoari, eta interesdunei horren berri eman beharko die. Beraz, GFAk BFARI bidali bide zion epearen barruan aurkeztutako errekerimendu hori, are gehiago errekerimendu-idazkiaren gorputzetik bertatik, lehenengo paragrafoetik, argi eta garbi ondorioztatzen zelako BFA zela organo eskuduna. Hori babesten dute, besteak

beste, Auzitegi Gorenaren azaroaren 26ko 1635/2019 Epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3800) eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren urtarrilaren 26ko 10/2023 Epaiak (ECLI:ES:TSJNA:2023:118).

3-. Atzera egitea

ZAEAk, azken alegazioen izapidean, 30/2018 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egin duela deklaratzeko eskaera bat aurkeztu zuen, eta aitortu zuen BFari zegokiola LORENZOk hartzaile jakin batzuei 2015eko eta 2016ko ekitaldietako lanagatik egindako PFEZaren atxikipenak ordainarazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan, *ratione temporis* testu aplikagarrian, xedatutakoaren arabera. Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du.

Atzera egitea prozedura amaitzeko moduetako bat dela jasotzen da APAPELen 84. artikuluan, eta aplikagarria da, EIABAREN 8. artikulua egindako igorpenari jarraikiz.

Ildo horretan, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, ez baitago prozeduran hirugarren pertsona interesdunik, eta gatazkan sortutako auzia ez baita interes orokorrekoa, eta ez baita komeni hura bideratzea definitu eta argitu dadin. Eta, ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egitearen ondorioz prozeduraren xedea gerora galdu delako.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta HIJOS DE LORENZO SANCHO SAr jakinaraztea.